| .2025 irakasle oposizioak /Oposiciones docentes 2025 | | |
|---|---|---|
| **Cuerpo o puesto/ Kidegoa edo lanpostua:** | **Especialidad/Espezialitatea:** | **Idioma/ Hizkuntza:** |
| **0591** | **ADMINISTRAZIO KUDEAKETAKO PROZESUAK** | **EUSKARA** |
| **PRUEBA PRÁCTICA-PROBA PRAKTIKOA** | | |

**1. ariketa. 2,5 puntu.** (Galdera bakoitza: ✓ +0.0715 ✗ -0.025 Txuri 0)

*Hurrengo galderak Office 2019 eta Windows 10 aplikazioetan oinarrituak daude.

1. Zer teklatu-lasterbidek minimizatzen ditu leiho guztiak eta mahaigaina erakusten du?

a) Win + M
b) Win + D
c) Ctrl + M
d) Alt + Tab

2. Nola alda daiteke paperaren tamaina Worden?

a) Konfigurazio aurreratuko panelaren bidez.
b) "Orriaren konfigurazioa-Tamaina" aukera erabiliz, "Disposición" fitxan.
c) "Hasiera" menutik.
d) Ezin da aldatu.

3. Zer gertatzen da sekzio-jauzi bat ezabatzean?

a) Aurreko orrialdeak ezabatzen dira.
b) Atal horretako formatu espezifikoak galtzen dira.
c) Dokumentuan ez da aldaketarik gertatzen.
d) Atal berriak sortzen dira automatikoki.

4. Zein da fitxategi-esploratzailea irekitzeko lasterbidea?

a) Win + E
b) Win + R
c) Ctrl + E
d) Alt+E

5. Zer zutabe mota txerta daitezke Worden?

a) Zabalera finkoko zutabeak bakarrik.
b) Gehienez ere 3 zutabe.
c) Zutabe aurre definituak edo 10 arte pertsonalizatuak, beti ere orriaren marjinak “normal” izanda.
d) Aurreko guztiak gaizki daude.

6. Access datu base baten eremu batean pertsona fisikoen NANa edo NIEa sartu behar da, zein da prestatu beharreko sarrera maskara egokiena?

a) A0000000A
b) A0000000L
c) L0000000L
d) L0000000A

7. Korrespondentzia konbinatzeko zer eremuk ahalbidetzen du informazioa eskuz sartzea elkarrizketa-koadro baten bidez?

a) Galdetu (“Preguntar”).
b) Bete (“Rellenar”).
c) Markatzailea esleitu (“Añadir marcador”).
d) Informazioa sartzea (“Introducir información”).

8. Aukera hauetatik, zein ez da Wordeko estiloen funtzio bat?

a) Formatu anitzak aldi berean aplikatzea.
b) Formatu pertsonalizatuen konbinazioak sortzea.
c) Irudiak automatikoki editatzea.
d) Dokumentu baten diseinuan koherentzia erraztea.

9. Ze extensioarekin gordetzen da Wordeko txantiloi bat?

a) .docx
b) .dot
c) .dotx
d) .doc

10. Korrespondentzia konbinaketan zer baldintza erabil liteke "Bai... orduan... bestela..." konbinatzeko erregelan, gaztelaniaz "Estimada" edo "Estimado" jartzeko? Kontutan izan "E" emakumea eta "G" gizona esan nahi duela.

a) "Sexua" eremua "E" bada, orduan "Estimado", horrela ez bada "Estimada".
b) "Sexua" eremua "G" bada, orduan "Estimado", horrela ez bada "Estimada".
c) "Sexua" eremua "E" bada, orduan "Estimada", horrela ez bada "Estimado".
d) b eta c zuzenak dira.

11. Zer elementu da ezinbestekoa korrespondentzia konbinatzeko?

a) Grafikoak dituen dokumentu bat.
b) Dokumentu nagusi bat eta datu-base bat.
c) Txantiloi-formatua duen dokumentu bat.
d) Dokumentu babestu bat.

12. Zer grafiko mota txerta daitezke Worden?

a) Exceleko grafikoak bakarrik.
b) Barra-grafikoak bakarrik.
c) Exceleko grafikoak, SmartArt eta grafiko estatistikoak.
d) Ezin dira grafikoak txertatu Word-en.

13. Nola sartzen da Wordeko inprimaki-kontroletara?

a) "Txertatu" ("Insertar") fitxatik.
b) "Programatzailea" ("programador") fitxa aktibatuta.
c) "Berrikusi" ("Revisar") menutik.
d) "Ikusi" ("Vista") fitxatik.

14. Zein tekla-konbinazio erabiltzen da paragrafo bat "justificado" lerrokatzeko?

a) Ctrl + J
b) Ctrl + L
c) Ctrl + C
d) Ctrl + T

15. Nola babes dezakezu dokumentu bat pasahitz batekin?

a) "Fitxategia" fitxatik → "Dokumentua babestu" → "Pasahitzarekin zifratu"
b) Gako bat aplikatuz "Hasiera" fitxan.
c) "Berrikusi" fitxatik → "Babestu"
d) Dokumentua .PDF moduan gordez.

16. Worden bost orrialde dituen dokumentu batean hirugarren orrialdea horizontalean egotea eskatu dizute, nola egiten da?

a) Hirugarren orrialdean egonda disposición_orientación_horizontal aukeratu behar da.
b) Hirugarren orrialdean egonda disposición_saltos_salto página siguiente eta laugarren orrialdean orri salto bat txertu eta ondoren disposición_orientación_horizontal aukeratu behar da.
c) Hirugarren orrialdean egonda disposición_saltos_salto página siguiente eginda et ondoren disposición_orientación_horizontal aukeratu behar da.
d) Bigarren orrialdean egonda disposición_saltos_salto de sección página siguiente eta hirugarren orrialdean egonda disposición_saltos_salto de sección página siguiente eginda eta ondoren hirugarren orrialdean egonda disposición_orientación_horizontal aukeratu behar da.

17. Worden korrespondentzia konbinaketan zer alde dago "Konbinatu zenbaki-erregistroa" eta "Konbinatu zenbaki-sekuentzia" artean?

a) "Konbinatu Erregistro Zk." -k kartaren zenbakia erakusten du konbinatzeko unean, eta "Konbinatu Zk. Sekuentzia" -k, berriz, hartzaileek zerrendan duten posizioa.
b) "Konbinatu Erregistro Zk." -k hartzaileek zerrendan duten posizioa erakusten du; "Konbinatu Zk. Sekuentzia" -k, berriz, konbinatzeko unean duen karta-zenbakia erakusten du.
c) "Konbinatu Sekuentzia Zk." Excelekin bakarrik funtzionatzen du eta ez Worden.
d) "Konbinatu erregistro zk." etiketetan bakarrik erabiltzen da.

18. Zein tekla-konbinaziok ematen du leiho irekien artean aldatzeko aukera?

a) Alt + Shift
b) Alt + Tab
c) Win + Tab
d) Ctrl + Esc




Access datu base batek aurreko irudian ikusten diren taulak eta eremuak ditu, honetan oinarrituz hurrengo galderak erantzun (19-24):

19. Zein da taulen artean sortu ahal den erlazioetako bat eta ze motatakoa da?

a) Bezeroak-Eskabideak taula bezero kode eremuaren bitartez eta ∞-1 motatakoa.
b) Produktuak-Eskaera taula artikulu kodearen bitartez eta 1-∞ motatakoa.
c) Eskaerak-Eskabideak taula eskaera zbkia eremuaren bitartez eta 1-∞ motatakoa.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

20. Kontsulta bat sortu behar duzu non datu basean dauden produktuen artean hurrengo baldintzak betetzen dituztenak ikusi nahi diren; produktuaren deskribapena T hizkiaz hasten dena edo kirol sekzioko produktua den eta inportatua. (jakinda inportatua eremua si/no motakoa den). Kontsultan inportatua eremua ez da pantailaratu behar.



| BEZEROAK | ESKABIDEAK | ESKAERAK | PRODUKTUAK |
|---|---|---|---|
| Bezero kode | Eskabide Zenbakia | ESKABIDE ZBKIA | ARTIKULU KODE |
| Enpresa | Bezero Kodea | ARTIKULU KODE | SEKZIOA |
| Helbidea | Eskaera Data | UNITATEAK | DESKRIBAPENA |
| PK | Ordaintzeko Era | | SALNEURRIA |
| Herria | Deskontua | | DATA |
| Telefonoa | Igorria | | INPORTATUA |
| Arduraduna | | | JATORRIA |
| Historiala | | | ARGAZKIA |

21. Kontsulta bat sortu behar duzu non hurrengo baldintzak betetzen dituzten bezeroen izenak soilik pantailaratu behar diren. Baldintzak urtearen lehenengo hiruhilekoan egindako eskabideetan, %10eko deskontua baino gehiago egin zaien bezeroak eta ordaintzeko era "30 egunetara" egin dutenek. Bezeroak goranzko hurrenkeran agertu behar dira eta kontutan izan data 0000/00/00 formatuan dagoela.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Campo: | | | | | |
| Tabla: | | | | | |
| Orden: | | | | | |
| Mostrar: | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Criterios: | | | | | |
| o: | | | | | |

22. Datu basetik Estatu Batuetan (EEBB) jatorria duten eta salneurria 100€ baino txikiagoa duten produktuak eliminatu behar dira. Kontsulta sortu.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Campo: | | | | | |
| Tabla: | | | | | |
| Eliminar: | | | | | |
| Criterios: | | | | | |
| o: | | | | | |




23. "Haurrak" edo "Lorezaintza" sekzioko produktuei salneurria %15a jaitsi egin behar zaie. Kontsulta sortu.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Campo: | | | | | |
| Tabla: | | | | | |
| Actualizar a: | | | | | |
| Criterios: | | | | | |
| o: | | | | | |

24. Zenbat produktu ditu enpresak? Kontsulta sortu.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Campo: | | | | |
| Tabla: | | | | |
| Total: | | | | |
| Orden: | | | | |
| Mostrar: | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| Criterios: | | | | |
| o: | | | | |

| | B | C | H | I |
|---|---|---|---|---|
| 1 | **Hornitzailea** | **Merkatal kontaktua** | **Izena** | **Abizenak** |
| 2 | So Factive | Lorenzo,Cantón Galan | Lorenzo | Cantón Galan |
| 3 | Kontroller | Adelina,Valls Canet | Adelina | Valls Canet |
| 4 | Finance Api | Eulalia,Del Galindo Arrieta | Eulalia | Del Galindo Arrieta |
| 5 | Biomotivate | Tania,Catalán Galván | Tania | Catalán Galván |
| 6 | Deltavita | Abraham,Girón Soler | Abraham | Girón Soler |
| 7 | Metta Statu_cru_lumarn | Erasmo,Gibert Quevedo | Erasmo | Gibert Quevedo |
| 8 | Town Of Abus Road | Ana Belén, Mayo Correa | Ana Belén | Mayo Correa |
| 9 | Player | Valentina,Enríquez Montalbán | Valentina | Enríquez Montalbán |

25. Aurreko taula oinarri bezala hartuta, H2 gelaxkan C2 gelaxkan ageri den hornitzailearen izen eta abizenetatik izena soilik lortu behar da, hau da, “Lorenzo”, irudian ageri den bezala. Zein da H2 gelaxkan sortu beharreko Excel formula?

a) =IZQUIERDA(C2;HALLAR(",";C2;1)-1)
b) =EXTRAER(C2;HALLAR(",";C2;1)-1)
c) =IZQUIERDA(C2;ENCONTRAR(",";C2;1)-1)
d) =EXTRAER(C2;ENCONTRAR(",";C2;1))

26. C2 Gelaxkan dauden karaktere zenbatekoa jakiteko ze formula erabiliko zenuke?

a) =EXTENSION(C2)
b) =LARGO(C2)
c) =HANCHO(C2)
d) =CARACTERES(C2)

27. H2 eta I2 gelaxketan dauden testu kateak beste gelaxka batean elkartuta agertzea nahi da, baina izena eta abizenen artean hutsune bat egon behar da. Zein da sortu beharreko formula?

a) =CONCATENAR(H2;" ";I2)
b) =UNIR(H2;" ";I2)
c) =H2&" "&I2
d) a eta c zuzenak dira.

28. Nola egiten da pantaila-argazki bat eta automatikoki gordetzen da Windows 10en?

a) Alt + Impr Pant
b) Win + Shift + S
c) Win + Impr Pant
d) Ctrl + Impr Pant

| | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Bezero kodea | Zonaldea | Herrialdea | Produktu mota | Salmenta bidea | Lehentasuna | Eskaera data | Eskaera zb | Bidalketa data | Aleak | Ale prezioa | Ale kostea |
| 2 | C2421 | Europa | United Kingdom | Snack | Offline | Larria | 12/10/2020 | 242113196 | 30/11/2020 | 5530 | 152,58 € | 97,44 € |
| 3 | C1908 | Europa | MAltua | Haragiak | Online | Altua | 26/01/2020 | 190800607 | 28/01/2020 | 994 | 421,89 € | 364,69 € |
| 4 | C7652 | Australia eta Ozeania | Marshall Islands | Zerealak | Online | Larria | 09/11/2020 | 765228068 | 21/11/2020 | 6845 | 205,70 € | 117,11 € |
| 5 | C2326 | Afrika | Iran | Frutak | Offline | Baxua | 21/08/2021 | 232631909 | 02/10/2021 | 9806 | 9,33 € | 6,92 € |
| 6 | C5305 | Erdialdeko Amerika eta I | Guatemala | Haur elikagaiak | Offline | Ertaina | 30/09/2022 | 530560958 | 12/11/2022 | 3633 | 255,28 € | 159,42 € |
| 7 | C5168 | Erdialdeko Amerika eta I | Grenada | Edariak | Offline | Baxua | 21/01/2022 | 516876542 | 21/02/2022 | 4110 | 47,45 € | 31,79 € |

29. Aurreko Excel taula oinarri bezala hartuta, enpresa honek biltegian dituen produktu aleen artean zenbat diren lehentasun altua dutenak eta online saltzen direnak jakin nahi da. Ze Excel formula sortu beharko da?

a) =SUMAR.SI.CONJUNTO(J2:J7;E2:E7;"Online";F2:F7;"Altua")
b) =CONTAR.SI.CONJUNTO(J2:J7;E2:E7;"Online";F2:F7;"Altua")
c) =SUMAR.SI.CONJUNTO(E2:E7;"Online";F2:F7;"Altua")
d) =CONTAR.SI.CONJUNTO(E2:E7;"Online";F2:F7;"Altua")

30. Jakin nahi da zenbat hilabete pasatu diren "23261909" zenbakia duen eskaera egin dutenetik bidali arte. Zein da sortu beharreko Excel formula?

a) =(G5-I5)/30
b) =(I5-G5)/30
c) =(I5-G5)
d) =(G5-I5)

31. Enpresari bidalketa epea laburra izatea da nortasuna ematen diona, hortaz, bidalketa epean atzerapenak izaten dituztenean bezeroei deskontuak aplikatzen dizkiete, sortu ahal izan dieten eragozpenengatik. Bidalketa epea 15 egun baino txikiagoa bada ez da deskonturik aplikatuko, bidalketa epea 15 eta 20 egunen artekoa bada %10eko deskontua aplikatuko da, bidalketa epea 20 eta 30 egunen artekoa bada %15eko deskontua aplikatuko da eta bidalketa epea 30 egun baino handiagoa bada %20eko deskontua aplikatuko da. Zein da Excelen sortu beharreko formula 2.lerroaren datuekin eginda eta aplikatu behareko deskontua literalki gelaxkan agertzea nahi bada?

a) =SI((I2-G2)>15;"%0";SI((I2-G2)>20;"%10";SI((I2-G2)>30;"%15";"%20")))
b) =SI((I2-G2)>15;"%10";SI((I2-G2)>20;"%15";SI((I2-G2)>30;"%20";"%0")))
c) =SI((I2-G2)<15;"%0";SI((I2-G2)<20;"%10";SI((I2-G2)<30;"%15";"%20")))
d) =SI((I2-G2)<15;"%10";SI((I2-G2)<20;"%15";SI((I2-G2)<30;"%20";"%0")))

32. Zein tekla-konbinaziok ematen du leiho aktibo bat ixteko aukera?

a) Ctrl + W
b) Alt+F4
c) Win + Esc
d) Ctrl + Shift + W

| | A | B | C | D | E | F |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | AURREKONTU GUZTIRA | 2.500.000,00 € | | | | |
| 2 | | % | LIBURUAK | ORDENAGAILUA | FORMAKUNTZA | ALTZARIAK |
| 3 | | | 20% | 22% | 33% | 25% |
| 4 | Hiruhil-1 | 15% | | | | |
| 5 | Hiruhil-2 | 20% | | | | |
| 6 | Hiruhil-3 | 28% | | | | |
| 7 | Hiruhil-4 | 37% | | | | |

33. Aurreko taula oinarri bezala hartuta, C4 gelaxkan formula bakarra prestatu behar da ondoren taula osora zabaltzeko.

Kontutan izan hiruhileko bakoitzeko aurrekontuaren % bat gastatuko dela (B zutabea) eta hori liburu, ordenagailu, formakuntza eta altzarien artean banatu behar dela.

a) =$B1*B$4*$C3
b) =$B$1*$B4*C$3
c) =$B$1*B$4*$C3
d) =$B$1*$B$4*$C$3

| | A | B | F | G | H | I | J |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Kodea | Hornitzailea | Ordaindu gabeko saldoa | Azken erosketa data | | | |
| 2 | P0001 | So Factive | 63,00 € | 04/09/2018 | | | |
| 3 | P0002 | Kontroller | 4.250,00 € | 08/06/2012 | | Kodea | O.G.Saldoa |
| 4 | P0003 | Finance Api | 2.412,00 € | 06/08/2017 | | P0003 | |
| 5 | P0004 | Biomotivate | 3.348,00 € | 22/05/2017 | | | |
| 6 | P0005 | Deltavita | 570,00 € | 17/01/2022 | | | |
| 7 | P0006 | Metta Statu_cru_lumarn | 261,00 € | 02/09/2014 | | | |
| 8 | P0007 | Town Of Abus Road | 4.733,00 € | 26/02/2021 | | | |
| 9 | P0008 | Player | 18.254,00 € | 06/01/2019 | | | |

34. Aurreko taula oinarri bezala hartuta, I4 gelaxkan dagoen zerrendatik hornitzaile kode bat aukeratzen denean J4 gelaxkan hornitzaile horrek enpresari ordaindu gabeko saldoa agertzea nahi bada, zein da J4 gelaxkan sartu beharreko Excel formula?

a) =BUSCARV(A4;A1:G9;3;FALSO)
b) =BUSCARH(I4;A1:G9;3;FALSO)
c) =BUSCARV(I4;A1:G9;3;FALSO)
d) =BUSCARV(J4;A1:G9;3;FALSO)

35. Zer egiten du Win + L lasterbideak?

a) Ekipoa itzali.
b) Erabiltzailearen saioa ixten du.
c) Pantaila blokeatzen du.
d) Ataza-administratzailea irekitzen du.

**2. ariketa. 2,5 puntu.**

Arrieta E.A.k 2025eko ekainaren 22an (IFK: B31568974, Landagoikoa industria poligonoa, L kalea, 31005 Iruña, 948236971) bere bezero txikizkaria den eta baliokidetasun-errekarguaren araubide berezira atxikitua dagoen, Enara Arrien Mendizabaleri (NAN: 45629158K, Nagusia kalea 30, 31600 Burlata) 2025eko ekainaren 7an egindako E/2025/0126 eskaera bidali dio.

F/2025/0130 faktura zenbakia duen ondorengo faktura prestatu du, jakinda transferentziaren bidez ordainduko duela.

Merkatal eragiketa hurrengo baldintzetan egin da:

- 30 BIC boligrafo urdin kutxa (100 ale kutxa bakoitzean), 25€/kutxa.
- 60 A4 koaderno kutxa (10 ale kutxa bakoitzean), 2,55€/alea.
- 50 Euskara eta literatura testu liburu kutxa (6 ale kutxa bakoitzean), 120€/Kutxa.

Enara Arrien Mendizabal ohiko bezeroa denez %10eko merkatal deskontua du.

Enpresak eskaintza berezia du non 50 kutxa edo gehiagoko eskaeretan %5eko rappela aplikatzen duen eta %5eko goiz ordaintzeagatiko deskontua ere. Garraioa 75€ dira zenbatekoaren arabera banatuta eta enbalajeen gastua 0,10€/kutxa da.
Kalkuluak bi dezimaletara borobildu behar dira.

a) **Fakturan akatsak daude, zeintzuk diren eta zergatik azaldu itzazu. (0,8p.)**

b) **Enuntziatuan azaltzen diren merkatal eragiketaren baldintzak kontutan hartuta zein da Enara Arrienek A4 koadernoarengatik ordaindu duen aleko kostea? (0,85p.)**

c) **A4 koadernoa produktuaren hurrengo informazioa izanik**
   - **Eguneko salmentak: 3 ale**
   - **Eskaera egiteko kostea: 5,50 €**
   - **Produktua biltegian mantentzeko kostea 0,05€/alea**

   **Diruaren legezko prezioa %1**

   **Hornitzailea den Arrieta E.A.ren entrega epearen atzerapena 4 egunekoa da eta urte komertzialarekin lan egiten da.**

   **Wilson metodoa aplikatuz lortu ezazu: (0,85p.)**
   1) **Eskaera kopuru hoberena**
   2) **Eskaera puntua**
   3) **Epealdiko eskaera kopurua**
   4) **Bi eskariren artean igarotzen den denbora**
   5) **Aurrekoen irudikapen grafikoa**

| **3. ariketa. 2,5 puntu.** |
|---|

## Datuak nomina egiteko

- Enpresa eta langilea Nafarroan daude.
- Helbide fiskala Nafarroan da.
- Lan kontratu mugagabe arrunta du gure langileak

| | |
|---|---|
| Antzinatasuna | 2015/02/01 |
| Kategoria | 5. taldea. Ofizial administraria |
| Kotizazio taldea | 05 |
| Ordainketa mota | Hilekoa |
| KITAPEN-EPEALDIA | 2025eko maiatza |
| PFEZ | %13,5 |

**Sortzapenak**

Oinarrizko soldata 1.184€, antzinatasuna %15 oinarrizko soldataren gain

Etortze plusa 120,20€.

Jatetxe tiketak 15 egunekoak 90,15€

Garraio plusa 136,36 €.

Osasun aseguru pribatua 80€ hileko (Enpresak hartuta eta ordainduta).

Badira bi aparteko pagak, oinarrizko soldata gehi antzinatasuna kobratzen du gure langileak ekaina eta abenduan.

Hil honetan egin ditu aparteko orduak, ezinbestekoak 140,40€ eta egiturazkoak 90,15€.

Dietak ere hartu ditu,4 egunetakoak, Espainian gaua kanpoan pasatuz, 70€ egun bakoitzeko.

Kilometrajea ere kobratu du, 100 km. 4 aldiz egiteagatik, 0,40€/km-ka.

**Kalkulatu:**

1. **Kontingentzia profesionalengatik kotizazio oinarria (0,75 p.)**
2. **PFEZ atxikipena. (0,75 p.)**
3. **LIKIDOA, jasotzekoa guztira. (0,5 p.)**
4. **LANGILEaren ekarpenak GIZARTE SEGURANTZAra (0,5 p.)**

Kalkulu guztietan bi dezimaletara borobildu.

**4. ariketa. 2,5 puntu.**

**1. KASU PRAKTIKOA:**

Iruñean kokatuta dagoen LAIKA, SA enpresak, I.F.K:A37556677 IFZarekin, honako eragiketa hauek egiten ditu 2024ko bigarren hiruhilekoan.

1 – Salgaiak saltzen dizkie Espainiako enpresei:

- %21eko BEZarekin 38.000 euroko zenbatekoarekin
- % 4ko BEZarekin 12.000 euroko zenbatekoarekin.

2 – Espainiako enpresen salmenta-itzulketak jasotzen ditu 1.800 euroko zenbatekoan, %21eko BEZarekin.

3 – Laboral Kutxa banketxeak, 10.000€ko mailegua ematen dio.

4 – Salgaiak saltzen dizkie Espainiako merkatari txikizkarien baliokidetasun errekarguan:

- 14.000€ % 21eko BEZ
- 1.900€ % 4ko BEZ

5 – Austriako enpresa bati salgaiak saltzen dizkio 3.500 euroko zenbatekoarekin.

6 – Kanadako enpresa bati salgaiak saltzen dizkio 4.800 euroko zenbatekoarekin.

7 – Salgaiak erostea:(% 21eko BEZ)

- 28.000 euroko balioa duten Espainiako enpresei
- 8.000 euroko balioa duten Herbehereak enpresei
- 12.000 euroko balioa duten Taiwaneko enpresei

8 – Langileen soldatak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak igotzen dira 8.900 euroan.

9 – Bulegoa dagoen lokalaren alokairua 380 € balio du.

10 – Epealdian kontsumitutako hornidurak honako hauek dira:

- Argindarra: 650 €
- Telefonoa: 980 €
- Ura: 250 € (BEZ % 10)

11 – 14.500 eurotan produktu-banaketa egiteko furgoneta erostea.

12 – Bezeroarentzako arretarako gastuak 520 € guztira.

13 – Furgoneta asegurua 800 eurokoa da.

**Aipatutako eragiketa guztien faktura behar bezala jasota dago.**
**Kalkulatu: (1,75p.)**

1. **Sortutako BEZ oinarri eta kuotak. (0,5p.)**
2. **Jasandako BEZ oinarri eta kuotak. (0,5p.)**
3. **BEZ likidazioa egin eta arrazoitu erantzuna. (0,25p.)**
4. **Osatu BEZaren F69 dokumentua. (0,5p.)**

**2. KASU PRAKTIKOA:**

**Beti zutik, SA** enpresak kenkari eskubidea sortarazten duten eragiketa batzuk eta eskubiderik ematen ez duten beste batzuk egiten dituenez, hainbanaketa orokorraren erregela aplikatu behar du.

2023 ekitaldian, % 70eko behin betiko hainbanaketa izan zuen. 2024 ekitaldian, informazio hau aurkeztu du:

| HIRU-HILEKOAK | B.E.Z. SORTUA | | B.E.Z. KENGARRIA (KENGARRIA ETA EZ KENGARRIA) | | ERAGIKETA SALBUETSIAK | EUROPAR BATASUNEKO ESKURAPENAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | TASA | ZERGA OINARRIA | TASA | ZERGA OINARRIA | | TASA | ZERGA OINARRIA |
| 1. HIRU. | %21 | 20.000 € | %21 | 14.000 € | 4.000 € | | |
| 2. HIRU. | %21 | 20.600 € | %21 | 23.000 € | 3.800 € | | |
| 3. HIRU. | %21 | 18.300 € | %21 | 17.500 € | 3.500 € | | |
| 4. HIRU. | %21 | 27.000 € | %21 | 21.500 € | 4.500 € | %21 | 15.000 € |

**Kalkulatu: (0,75p.)**

1. **2024 ekitaldiko behin-betiko ehunekoa. (0,2p.)**
2. **2024 ekitaldiko 1., 2. eta 3. hiruhilekoen likidazioa. (0,2p.)**
3. **2024 ekitaldiko 4. hiruhilekoaren likidazioa eta argudiatu. (0,35p.)**

| |
|---|
| Arrieta EA<br>Landagoikoa industri polgonoa L kalea<br>31005 Iruña<br>948236971<br><br>I.F.K./N.A.N B31568974 |

| |
|---|
| Enara Arrien Mendizabal<br>Nagusia kalea 30<br>31600 Burlata |
| I.F.K.-N.A.N 45629158K |

| FACTURA Nº<br>FAKTURA ZBKIA | FECHA /DATA |
|---|---|
| E/2025/0126 | 2025/06/07 |

| Pedido<br>Eskabidea | Albarán<br>Albarana | S/Refe.:<br>Erreferentzia: | Forma pago<br>Ordainketa era |
|---|---|---|---|
| F/2025/0130 | | | Txekea |

| CANTIDAD<br>ALEAK | DESCRIPCIÓN<br>AZALPENA | PRECIO UD.<br>ALE PREZIOA | IVA<br>%<br>BEZ | RE<br>%<br>BE | DTO<br>%<br>DESK. | IMPORTE<br>ZENBATEKOA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 30 | Bic boligrafo kutxa | 25 | 21 | | | 750,00 |
| | Merkatal deskontua | | | | 10 | -75,00 |
| | Goiz ordaintzeagatiko deskontua | | | | 5 | -37,50 |
| | Garraioa | | | | | 25,00 |
| 30 | Enbalaiak | 0,1 | | | | 3,00 |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| 600 | A4 Kuadernoa | 2,55 | 21 | | | 1.530,00 |
| | Merkatal deskontua | | | | 10 | -153,00 |
| | Goiz ordaintzeagatiko deskontua | | | | 5 | -68,85 |
| | Rapel deskontua | | | | 5 | -65,41 |
| | Garraioa | | | | | 25,00 |
| 600 | Enbalaiak | 0,1 | | | | 60,00 |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| 50 | Euskara eta literatura testu liburua | 120 | 4 | | | 6.000,00 |
| | Merkatal deskontua | | | | 10 | -600,00 |
| | Goiz ordaintzeagatiko deskontua | | | | 5 | -270,00 |
| | Garraioa | | | | | 25,00 |
| 500 | Enbalaiak | 0,1 | | | | 50,00 |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

| IVA (%)<br>BEZA (%) | 21% | 10% | 4% | | |
|---|---|---|---|---|---|
| BASE IMPONIBLE<br>OINARRI ZERGAGARRIA | 1.993,24 | | 5.155,00 | | 7.148,24 € |
| BASE IMP. RECARGO<br>ERREKARGU OIN. ZERG | | | | | |
| CUOTA IVA<br>BEZ KUOTA | 418,58 | | 206,20 | | 624,78 € |
| CUOTA RECARGO<br>ERREKARGU KUOTA | | | | | |

| TOTAL FACTURA<br>FAKTURA GUZTIRA | | 7.773,02 € |
|---|---|---|

Nafarroako Gobernua

# BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (B.E.Z.)

## AITORPENA eta LIKIDAZIOA

NAFARROAKO OGASUNA

**F-69**

IHARDUERARIK EZ (X bat marraztu) | 93 |

## Araubide Orokorra eta Erraztua Hiruhilekoa

Erregistro zk.

| Subjektu pasiboaren datuak | I.F.Z./I.K. | IZEN-DEITURAK (EDO SOZIETATEAREN IZENA) | HARREMANETARAKO E-MAIL | TELEFONOA |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

URTEA | | HIRUHILEKOA | 2T

### B.E.Z. SORTUA

ARAUBIDE OROKORRA

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Komunitate barneko emateak | 10 | | | | |
| Esportazioak | 01 | | | | |
| Kenkarirako eskubiderik gabeko eragiketa salbuetsiak | 02 | | | | |
| Beste eragiketa batzuk (ikus jarraibideak) | 171 | | | | |
| | | ZERGA OINARRIA | TASA | | KUOTA |
| Tasa orokorreko eragiketak | 03 | | 21% | 13 | |
| Tasa murriztuko eragiketak | 04 | | 10% | 14 | |
| Tasa supermurriztuko eragiketak | 05 | | 4% | 15 | |
| Baliokidetasun errekargua % 5,2ean | 06 | | 5,2% | 16 | |
| **Baliokidetasun errekargua % 1,75ean** | 51 | | 1,75% | 52 | |
| Baliokidetasun errekargua % 1,4ean | 07 | | 1,4% | 17 | |
| Baliokidetasun errekargua % 0,5ean | 08 | | 0,5% | 18 | |
| Komunitate barneko eskurapenak | 09 | | | 19 | |
| Subjektu pasiboaren inbertsioko eragiketak | 172 | | | 173 | |
| Oinarri eta kuoten aldaketa | 176 | | | 177 | |

ARAUBIDE ERRAZTUA

| LIZ. FISKALEKO EPIGRAFEKO IHARDUERA | 1 MODULUA | 2 MODULUA | 3 MODULUA | 4 MODULUA | LOTERIAK | A MOTAKO MAKINAK | B MOTAKO MAKINAK | APUSTU MAKINAK | MODULUKA SARTU BEHARREKO HIRUHILEKO KUOTAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 65 | 33 | 34 | 35 | 36 | 101 | 37 | 38 | 40 | 81 |
| 66 | 53 | 54 | 56 | 57 | 102 | 58 | 59 | 60 | 82 |

| NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO JARDUERAK | Jardueraren deskripzioa | Hiruhileko dirusarrerak | Kuota-indizea | |
|---|---|---|---|---|
| | | 88 | 89 | 84 |
| | | 44 | 46 | 87 |

| | | |
|---|---|---|
| MODULUKA SARTU BEHARREKOA GUZTIRA ( 81 tik 87 rakoen Batura) | 86 | |
| Batasunaren barneko eskurapenak | 11 | |
| Eraikin, itsasontzi eta aktibo finko ez-materialak emateak | 21 | |
| Subjektu pasiboaren inbertsioa duten beste eragiketa batzuk | 22 | |

KOMUNITATE BARNEKO EMATEAK | 12 |

B.E.Z. SORTUAK GUZTIRA ( 13 tik 22 rakoen batura + 173 + 177 + 86 + 11 + 52 ) | 20 |

### B.E.Z. KENGARRIA

ARAUBIDE OROKORRA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Barneko eragiketa arruntetan jasandako kuotengatik | 31 | | 41 | |
| Inbertsio-ondasunekiko barneko eragiketetan jasandako kuotengatik | 131 | | 141 | |
| Inportazioetan jasandako kuotengatik | 32 | | 42 | |
| Batasun barneko eskurapenak | 39 | | 49 | |
| Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako Araubide Bereziko Konpentsazioak | 170 | | 43 | |
| Subjektu pasiboaren inbertsioko eragiketak | 174 | | 175 | |
| Oinarri eta kuoten aldaketa | 178 | | 179 | |
| Inbertsioen erregularizazioa | | | 45 | |
| Hainbanaketaren behin betiko porzentajearen erregularizazioa | | | 450 | |

AR. ERRAZ.

| | | |
|---|---|---|
| Eraikin, itsasontzi eta aktibo finko ez-materialen inportazio edo eskurapena | 47 | |
| Inbertsioen erregularizazioa | 48 | |

KUOTA KENGARRIAK GUZTIRA ( 41 tik 450 ) | 50 |

### EMAITZA

Epealdian ematen duen kuota { Zerga Nafarroari soilik ordaindu behar dioten Subjektu Pasiboak ( 20 - 50 ) | 61 |
Zifra Erlariboko Subjektu Pasiboak 55 % ( 20 - 50 ) x 55 ) | | 

Konpentsatzeko dauden aurreko epealdietako kuotak (aurreko aitorpenaren 63 laukia) | 62 |

Zergak Nafarroako Foru Diputazioari eta Estatuaren Administrazioari batera ordaindu behar dizkioten subjektu pasiboentzat soilik.
URTEKO ERREGULARIZAZIOA 69 |

EMAITZA ( 61 - 62 ± 69 ) | 63 |

**URTEKO LABURPENA (Bete behar da urteko azkeneko epealdian, edo jarduera amaitzeagatik.)**

PERTSONA EDO ENTITATE BATEKIN, GUZTIRA, 3.005,06 EUROTIK GORAKO ERAGIKETAK EGIN DITUZU? BAI ☐ 164 EZ ☐ 165

Hainbanaketa berezia aplikatzen du BAI ☐ 305

Bereizitako sektoreen araubidea aplikatzen du BAI ☐ 307

Behin betiko hainbanaketaren % 303 %

(ikus jarraibideak)

ARAUBIDE ERRAZTUKO ERAGIKETEN URTEKO BOLUMENA 201 |

**AUKERAN: itzultzeko eskaera**

Itzuli beharreko kopurua 600 |

**ITZULKETA HELBIDERATZEKO BANKU KONTUA**

IBAN Entitatea Bulegoa K.D. Kontu zenbakia

Ikusi datuen babesari buruzko informazioa erantsitako orrian

***Jakin beharrrekoa:*** *Baduzu aukera aitorpen hau Internet bidez aurkeztu eta ordaintzeko. Argibideak 948 50 51 52 telefonoan edo gure webgunean:* ***http: //hacienda.navarra.es***

(DATA ETA ZERGADUNAREN SINADURA)

Data ko AZAROA ren n

Stua.

I.F.Z.

(SARRERA ZIGILUA)

11 - 2013

ADMINISTRAZIOARENTZAKO ALEA

Documento generado: 25/02/2021 8:57:17

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO OGASUNA

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (B.E.Z.)

713

713 1 99924475 4

URTEA

## ORDAIN GUTUNA

HIRUHILEKOA 2T

| SUBJETU PASIBOA | I.F.Z./I.K. | Deiturak eta Izena (edo Sozietate Izena) | Telefonoa |
|---|---|---|---|

Documento generado: 25/02/2021 8:57:17

JARRAIBIDEAK

Agiri hau goian ageri diren urte, epealdia edo kontzeptuagatik dirusarrerak egiteko erabili behar da, eta inolako kasutan ezingo da kopuru negatiborik ezarri. Dirua Banku edo Aurrezki Kutxetan sartu behar da.

SARTZEKO KOPURUA

1

Data: .......ko AZAROA .............................aren................n
(Subjektu pasiboaren edo agiriaren aurkezlearen sinadura

Stua. .............................................................................J/A
I.F.Z.:......................................

NAFARROAKO FORU OGASUNAREN alde egindakodirusarrera, TRIBUTUEN BILKETARAKO kontua.

ORDAINKETA NON ETA NOLA EGIN DEN
☐ E.L. eskudiruz ☐ E.L. Kontuan zordunduz

Zenbatekoa: I

| IBAN | Entitatea | Bulegoa | K.D. | Kontu zenbakia |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

Ikusi datuen babesari buruzko informazioa erantsitako orrian

*Jakin beharrrekoa: Baduzu aukera aitorpen hau Internet bidez aurkeztu eta ordaintzeko. Argibideak 948 50 51 52 telefonoan edo gure webgunean: www.cfnavarra.es/hacienda*

BANKU-ENTITATEARENTZAKO ALEA

# Emaitza orria:

**1. ARIKETA:**

| | |
|---|---|
| 1. | |
| 2. | |
| 3. | |
| 4. | |
| 5. | |
| 6. | |
| 7. | |
| 8. | |
| 9. | |
| 10. | |
| 11. | |
| 12. | |

| | |
|---|---|
| 13. | |
| 14. | |
| 15. | |
| 16. | |
| 17. | |
| 18. | |
| 19. | |
| 20. | |
| 21. | |
| 22. | |
| 23. | |
| 24. | |

| | |
|---|---|
| 25. | |
| 26. | |
| 27. | |
| 28. | |
| 29. | |
| 30. | |
| 31. | |
| 32. | |
| 33. | |
| 34. | |
| 35. | |

**2. ARIKETA:**

| | | |
|---|---|---|
| a) | | |
| b) | | |
| c) | 1. | |
| | 2. | |
| | 3. | |
| | 4. | |
| | 5. | |

**3. ARIKETA:**

| | |
|---|---|
| 1. | |
| 2. | |
| 3. | |
| 4. | |

**4. ARIKETA:**

1. KASU PRAKTIKOA

| | |
|---|---|
| 1. | |
| 2. | |
| 3. | |
| 4. | |

2. KASU PRAKTIKOA

| | |
|---|---|
| 1. | |
| 2. | |
| 3. | |